

EBAZPENA, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita 2025-2027 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren abenduaren 3ko Aginduak (EHAA, 244 zk., 2024ko abenduaren 17koa), 2025-2027 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten du.

Hautapen Batzordeak aginduaren 10. eta 11. artikuluek ezarritakoaren arabera esleipen-proposamena egin zuen. Proposamen hori ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen 1. eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko.

Bigarrena.– Ebazpen honen 2. eranskinean ageri diren Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroan aurkeztutako eskaerak ezestea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.- Ebazpen honen 3. eranskinean jasotzen den eskabide bakar bat baztertzea, adierazitako arrazoiengatik..

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtoa jarri ahal izango da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO

Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordea